

SAILKAPENA

1.3 Esnatze jolasa

IZENA:

Hiru lerroan

HELBURUA:

Partehartzaileen arteko harremana ekintza ludiko bitartez sustatzea eta deszentralizatzeko beharraren inguruko hausnarketa piztea.

DENBORA:

10 minutu

LEKUA:

Garrantzitsua da, espazioak zabala izan behar baitu.

TALDEAREN BALDINTZAK

Pertsona kopurua: Oso talde txikietan ez.

Taldearen egoera: Ezezagun zein ezagun artean egiteko aproposa.

AZALPENA:

Parte hartzaile bakoitzak bertan dauden beste bi pertsona hautatu beharko ditu, isilean. Aukeraketa egin ostean, pertsona bakoitza, aukeratu dituen bi pertsonen artean kokatu eta lerro zuzen bat osatzen saiatu beharko dela adieraziko du dinamizatzaileak. 3 minutu pasa eta gero, ariketa geldituko da eta lorpenen araberako hausnarketa (laburra) jorratuko dugu. Ostean, beste bi pertsona aukeratzeko eskatuko du dinamizatzaileak eta horiekin oraingoan hirukia osatzeko eskatu. Ariketa hau pertsona guztiek hirukia osatzen dutenean bukatuko da.

OHARRAK:

MATERIALA:

ITURRIA:

Mugimenduak Elkarriketan Topaketak.